

# ABETXUKO

– ARABA / ÁLAVA –

Arabako hiriburutik iparraldera dago Abetxuku, Zadorra ibaiaren eskuinaldean. Gasteiz erdigunetik kaleetan barrena eginik iristen da bertara. Santa Isabel hilobirantz jo behar da lehenengo, Aguirre-landara gero, eta Arriaga auzoa zeharkatu, azkenean. Auzo horretako zubiaren beste aldean dugu gure helburua.

Gaur egun, hiriburuaren beste auzo bat dela esan daiteke. Izan ere, industriaren garapenaren eraginez, XX. mendeko 50eko urteetan asko hazi zen bertako biztanleria; hainbeste hazi zenez, Gasteiz hiriarekin bat egin zuen. Edozelan ere, Zadorra ibaiaren beste aldean dagoenez, landek inguratuta, eta antzinako herrixkari eutsi dionez, oraindik ere, denetariko iritziak daude gasteiztarren artean. Batzuek herrixkatzat hartzen dute, beste batzuek, ostera, hiriburuko auzotzat.

Ez da, ordea, beti horrela izan. Inguruko herrietan, Donemiliagako Rejako agirietan aipatu ohi denez, Divinako auzotzat dago, eta golde-burdina ordaintzen dute, hirurek; berak, lurrek eta Lopidak. *Avoggoco* zeritzoten orduan. Abetxuku oso herrixka txikia izan da. 1295. urtean, esaterako, bi onuradun

El pueblo de Abetxuko está situado al norte de la capital alavesa, en la margen derecha del río Zadorra. Desde el centro de la ciudad de Vitoria se llega a él callejeando. Primero en dirección al cementerio de Santa Isabel, siguiendo por Aguirrelanda y atravesando el barrio de Arriaga. Nuestro destino se encuentra al otro lado del puente de este barrio.

En la actualidad Abetxuko está considerado un barrio de la capital alavesa, como consecuencia del desarrollo industrial que se produjo hacia los años 50 del siglo XX, que trajo un importante crecimiento de población y su integración en el municipio de Vitoria. Por hallarse en la otra margen del río Zadorra, por estar rodeado de campo y haber mantenido el núcleo poblacional primitivo, muchos vitorianos tienen percepción ambivalente de Abetxuko, considerándolo en parte aldea y en parte un barrio de la capital.

No siempre ha sido así. Como es habitual en la zona, ya aparece en el documento de la Reja de San Millán, dentro del Alfoz de Divina, compartiendo la entrega de una reja con lurre y Lopidana. Entonces se le denominaba *Avoggoco*. Abetxuko ha

*Herriaren ikuspegi orokorra / Vista general del pueblo*



baino ez zeuden eta ermita bakarra, San Martini eskainia. Eta horrelaxe egon da urteetan, harik eta 1958an, lehenengo etxeen poligonoa eraikitzen hasi ziren arte. Orduantxe hasi zen ikaragarri handi egiten. Gaur egun, eliza bi daude Abetxukun, herriak izan dituen bi garai desberdinen adierazgarri: batetik, gaur egungo parrokia, San Jose Langilearena, eta antzinakoa, San Migel eliza. Bertan da Abetxukuko Jesu Kristoren irudia, eta, oraindik ere, bera gurtu eta goratzeko debozioari eusten diote, eta Garizuman, kasurako, tradizioa da hari erreztatzea eta Gurutze Bidea egitea.

sido una aldea muy pequeña que, en 1295, contaba con dos beneficiados y tenía sólo una ermita dedicada a San Martín. Así ha permanecido casi hasta el año 1958, en que se inició la construcción del polígono y de las primeras viviendas del poblado, punto de partida para su gran desarrollo. Hoy cuenta con dos iglesias, que corresponden a las dos épocas de la historia del pueblo: a la actual, la parroquia de San José Obrero, y a la antigua, la de San Miguel, donde se encuentra el Santo Cristo de Abetxuko, que conserva la devoción y culto a su imagen, y la tradición de rezar y recorrer el Vía Crucis en la Cuaresma.

## *San Migel eliza / Iglesia de San Miguel*

**I**PAR-EKIALDEAN dago San Migel eliza, herri-gunetik kanpo, baina antzinako herrirka zegoen lekutik hurbil. Muino baten gainean dago, herriak hartzen duen ibar-raren zelatan. San Migel goiaingeruaren omenezko eliza bada ere, bertan Jesu Kristoren irudia gordea duelako da ezagunagoa.

Eraikin erromanikoa da, eta Erdi Aroko egitura eta elementu batzuk ditu oraindik. Berritu egin zuten eta nahikoa egoera onean dago. Hargin-lanez eraiki zuten, harlanduak bazterretan, modu irregularrean jarrita, eraikina handitu edo eraldatu den heinean.

Eraikinaren hegoaldeko hormetan atari erromaniko bat dauka, arku karpanel eta guzti, gezileihoa desitxuratuz, beste aro batera garamatzala begitanduz. Egon ere, Erdi Aroko portada eder baten aurrean gaude, erdi-puntuko arku zaharreko dobelen aztarnek osatua. Argia ere bertatik sartzen zen. Erdi-puntuko hiru arkibolta dira: lehenengoa, baketoiduna, bigarrena, landare eta zurtoin kiribilduen irudiz apainduta; eta hirugarrena, bola bidezko moldurekin osatuta. Denaren gainetik, deskarga-arku laua, apaingarri-rik gabea, erdian nerbioa duena.

Arkibolta guztiei eusten dien eta zutabeak bereizten dituen inposta-lerroa, argi-leihotik deskarga-arkuraino doa. Apaingarri gisa, honako hauek ditu: hosto bertikalak ilaran, eta erdian nerbio perladun bat. Goiko aldean, badira hosto-puntak azpikoz gainera ere. Zutabe bi daude portadaren alde bakoitzean; fuste laua dute, eta harroinetan, atzapar irudiak. Badira, dena dela, xehetasun batzuk: batek moldura mehea daroa; bestea, berriz, biribilagoa da, eta angeluetan ditu bolak; gainerako biak berdina dira. Behe gainaren eta zutabeen artean zokalo bat ageri da, molduraz apainduta.

**L**A IGLESIA DE SAN MIGUEL está situada al Noreste, fuera del núcleo poblacional, pero próxima a las casas que formaban el antiguo poblado. Se halla enclavada en lo alto de una loma, dominando la ladera en la que se asienta la aldea. A pesar de encontrarse su dedicación al Arcángel San Miguel, es más conocida por albergar la popular imagen del Santo Cristo.

Se trata de una edificación románica, que conserva la estructura y algunos elementos de época medieval. Está restaurada y bastante bien conservada. Fue construida en piedra de mampostería, con sillares en las esquinas, colocados de forma irregular, a medida que se han ido efectuando ampliaciones e intervenciones.

En el muro meridional del edificio se encuentra una portada románica, con un arco carpanel que desfigura el vano, produciendo un impacto visual que parece trasladarnos a otra época. De hecho estamos ante una bonita portada medieval, compuesta por los restos de las dovelas del primitivo arco de medio punto, que daban lugar al vano de luz. La forman tres arquivoltas de medio punto: la primera, baquetonada; la segunda, decorada con motivos vegetales y tallos ondulantes entrecruzados, y la tercera, moldurada con bolas. Abraza el conjunto un sobreacto liso, sin decorar, recorrido por un nervio en el centro.

La línea de imposta que sirve de apoyo al conjunto de arquivoltas, y las separa de las columnas que las sustentan, va desde el vano de luz hasta el sobreacto. Lleva una ornamentación de hojas verticales que están unidas y dispuestas en hilera, con un nervio central perlado. En la parte superior, entre ellas, aparecen unas pequeñas puntas vueltas. Encontramos dos columnas a cada lado de la portada, con los fustes lisos y las basas con garras, en las que

Landareen askotariko irudiez apaindurik daude zuta-beotako kapitelak. Ezkerretik hasita, lehenengoaren inguruan, zurtoin kurbatuen eta pezioloen irudiak azaltzen dira; elkar hartu eta angeluetan bilduz, kiribildurak sorturik. Bi-

se aprecian algunos matices: una lleva una fina moldura; otra, es más redonda, aunque conserva las bolas en los ángulos; y las otras dos son iguales. Están separadas del suelo por un zócalo rematado con moldura.

*Portada / Portada*



garrena, hosto bertikalek osatzen dute, eta hosto horien folioloak erdiko ardatz trepanatu baten alde bietan ageri dira. Ertzean, gainera, ezkatadun fruitu baten irudia dago. Horren aurrez aurre, eskuineko aldean, hosto bertikaldun beste kapitela bat; bertako folioloak, berriz, perladun ardatz zentral baten alde bietan datoz, puntak azpikoz gainera dituztela. Trepano lan handia dute bi kapitela horiek, eta argilun efektu interesgarria sortarazten dute, kontrastez bete. Hostoen ertzak nabarmen geratzen dira, eta horien gainetik zurtoinek osatutako kiribildu txikiak ageri dira. Azken kapitela, amaitzeko, hosto apainak, perladun ardatzarekin ertzean, puntak azpikoz gainera dituela forma bitxiak eginez. Zurtoin luzeek kiribildurak osatzen dituzte angeluetan. Aurreko kapitela estilo biak nahasten dira azken horretan: batetik, lehenengoaren kurba sakonaren dinamismoa, eta bestetik, hurrengoaren zurruntasuna. Bat egite horrek hostoen irudi eder-ederrak ekarri ditu. Arrosa-koloreko tonuak dituzte denek, hareharriak emanda.

Badira Erdi Aroko beste aztarna batzuk ere hegoaldeko horman, harlandua berrerrabilita, baina sakristia zaharreko hego-ekialdeko hormaren ertzean, ondo sartuta, ageri den kapitela da denetan deigarriena. Landare irudiko kapitela da, hareharri arrosakarakoa, portadakoak bezalakoak, eta deskribatutako azken kapitela azaldutako apaingarri berberekin. Besteak baino hondatuxeago dago, eta 1966an eraikina berritu zutenean ukitu zen azkeneko, azalpenean dioen legez.

Eraikinaren burualdean ere, kanpoan, elementu erro-manikoak dira; esaterako, ur biko teilatu zahararen aztarnak, eta Erdi Aroko nabeak zuen zabalera adierazten diguten markak. Era berean, erdi-puntuko arkudun leiho zabal bat da; geroagokoa, zalantza barik, baina hosto bertikaleko inposta bat erantsita duena, perladun ardatz zentral batekin. Laua da alde batean. Bestean, berriz, hosto puntak ageri dira goialdean, azpikoz gainera; portadako inposta-lerroan erabilitako apaingura bera. Horien ondorengo urteetan, gainera, harburu lau batzuk ere ipini dituzte burualde horretan, eta harlanduetan azaltzen diren markek sasoi batean horiek guztiek landu zituzten hargin maisuen berri dakarkigute.


Iparraldeko horma gerora egindako zabalkunde baten ondorio da, han-hemenka Erdi Aroko elementuren batzuk gorde baditu ere. Ezaugarri horiek guztiek eraikinaren historia eta hangoen bizimodua erakusten dute. Mendebalde horretan, gainera, antzinako nabe zaharren zabalera esandako bera esan daiteke, burualdearekin baitago lotuta. Alde honetan, harrizko horma sendotuta dator eta Erdi Aroko kanpai-hormari eusten dio horrela. Horma zahar horretatik geratu dira kanpai-zulo bi, arku zorrotz antzeko banarekin. Eskantzetan erlaitz edo zurkaltz batzuk ikus-

Los capiteles de las columnas presentan una rica y variada ornamentación vegetal. El primero, comenzando por la izquierda, nos muestra tallos curvados y peciolos entrelazados que lo abrazan, se vuelven y se enroscan en los ángulos, formando volutas. El siguiente tiene hojas verticales, cuyos foliolos están dispuestos a ambos lados de un eje central trepanado, que en el vértice muestra un fruto escamoso. Frente a él, en el lado derecho, el capitel está compuesto por hojas verticales, en las que los foliolos se disponen a los lados de un eje central, en este caso perlado, con las puntas vueltas hacia fuera. Estos dos capiteles llevan una cuidada labor de trépano, que produce un interesante efecto de clarooscuro, con profundos contrastes que remarcan los bordes de las hojas, sobre las que asoman tímidamente unas pequeñas volutas formadas por tallos. En el último podemos ver hojas estilizadas, con un eje perlado en el vértice, con la punta vuelta hacia fuera creando bonitas formas. Unos tallos largos se construyen las volutas de los ángulos sobre ellas. En este capitel se mezcla el dinamismo de la curva del primer capitel, muy pronunciada, con la rigidez de los otros dos anteriores, dando lugar a unas hojas de gran belleza. Todos tienen unos tonos rosáceos que proceden de la piedra arenisca utilizada para su ejecución.

Encontramos otros restos medievales en el muro meridional con sillares reutilizados, aunque lo que más llama la atención es un capitel incrustado en la esquina del muro sudoeste de la antigua sacristía. Es un capitel vegetal de piedra arenisca rosácea, como los de la portada, y con el mismo motivo ornamental que encontrábamos en el último capitel descrito. Está un poco más estropeado, y fue recuperado en la última restauración que se hizo en 1966, como consta en el letrero explicativo.


La cabecera muestra también elementos románicos en el exterior, como son los restos de la doble vertiente del primitivo tejado y las marcas que indican la anchura que tenía la nave medieval. También encontramos un ventanal con arco de medio punto muy ancho, sin duda de época posterior, al que han adaptado una línea de imposta de hojas verticales, con el eje central perlado; un lado está liso y el otro presenta pequeñas puntas vueltas en la parte superior, motivo ornamental como el de la línea de imposta de la portada. Unas intervenciones tardías han reutilizado, también en esta cabecera, algunos canecillos lisos, mientras que las marcas de algunos sillares nos recuerdan a los maestros canteros que trabajaron en ella.

El muro norte corresponde a una ampliación posterior, aunque conserva elementos medievales dispersos. Son características que reflejan la historia y la vida del edificio y de sus gentes. En el lado de poniente también se aprecia lo



Oinplanoa / Planta

Hegoaldeko altxaera / Alzado sur



ten ditugu, dobleak eta lauak; erremate poligonal eta moldura bat besterik ez daramate gainetik. Ipar-ekialdean dauden beste biek, ostera, lepoko bat daramate. Hegoaldeko eskantzetan, zirkaitz irudidunak daude: andre-gizonen irudiak. Gizonezkoaren irudiak oso ezaugarri errealistak ditu, eta trepanoa begietan; ile-xerlo lodiak jausten zaizkio bekoki gainean eta belarriak ere luzera ertaineko ilajeak estalita ditu. Emakumezko baten irudia da bestea: ile laburra du eta burukoa darama, kokospeko uhal eta guzti. Aurpegiera, berriz, ez du horren zehatza. Oso datu interesgarriak dira izan, eta lotuta azter ditzakegu "dama eta zalduna" bikotea azaltzen den beste kasu batzuekin batera.

Deskribatutako zirkaitz ondik norakoa ez dazkigu. Nekez izango dira kanpai-horma baten goi ataleko euskarriak, airean geratuko bailiratekeen. Argi dagoena da gerora aldatu zirela lekuz, kanpai-hormako bi arkuen artean dauden zirkaitzak bezala, ez dira-eta aurrekoen antzekoak. Kanpandorre bihurtuta dago gaur egun. Horma horrextan bertan bada baita leihate bat ere, geroago zabalduakoa, hormako harrien iraunkortasuna nolabait hautsirik. Arku zorrotza du, molduradun arkibolta eta baketoidun deskarga-arkuarekin. Deskarga-arkuak ez du zirkaitzik, baina arkiboltak harroin eta kapitela bakuneko zutabe txiki batzuen gainean datoz; erremate poligonal apainduta, kanpai-hormako zirkaitzetakoak bezalakoak.

Elizaren barruan Erdi Aroko egitura dago: zati biko nabe bakarra eta burualde arteza. Arku zorrotzeko ganga batek estalita dago, eta burualdean baxuago dago, antzinako eliza zaharreko markei jarraituz. Garaipen-arkua, bikoitza eta zorrotza, hormari atxikitako bi zutabeen gainean dator. Beherengo atalak kendu zizkiten zutabe horiei, XVII. mendean egin zituzten lanetan, eta molduradun mentsula batekin errematatu. Horiek errematatzeko erabili diren kapitela aberatsak portadan daudenen traza eta neurri berekoak dira. Landare-irudi bidez daude apainduta. Ezkerrekoan, akanto-orriak ageri dira bi lerrotan, elkarren gainean; greziar artearen oroigarri, oso orri estilizatuak dira, perlatxoak dituzte erdiko ardatzean eta hosto-puntak azpikoz gainera; dena ere zurtoinez errematata, kiribildura txikiak osatuz. Eskuineko kapitela, berriz, beste erreregistro bi, erromatarren ordena korintoarra gogoraraziz; behekoan, akanto-orrien orde, beste garatuago batzuk jarri dituzte, Arabako erromanikoan behin baino gehiagotan agertu izan direnak. Iratze-orrien antza ematen diegu, perladun nerbio zentral eta pezioloekin; bertikalean daude jarrita, puntak binan-binan lotuta, eta sorta mardulak zintzilik. Orri horien guztien bazterretan erronbo itxurako gune batzuk eratu dira, trepano bidez eginak, eta argilun efektu nabarmena sortzen dute. Goiko erreregistroan, zurtoin lirainak ageri dira, angeluetan ohiko kiribildurak di-

comentado para la anchura de la nave primitiva, que guarda relación con la vista en la cabecera. Aquí el muro crece y soporta la espadaña medieval, de la que se conservan dos huecos de campanas con arco ligeramente apuntado. En los esquinales aún podemos ver unas repisas o apeos, que son dobles y lisos; llevan sobre ellos un remate poligonal y una moldura. En los dos que se encuentran en la esquina noroeste, además, llevan un collarino. En las esquinas de la parte sur hay dos apeos figurados, uno representa un rostro masculino de rasgos muy realistas y trépano en los ojos, con el cabello, de mechones gruesos que cae liso sobre la frente y le tapa las orejas, a modo de media melena. El otro es una cabeza de mujer, con melena corta, toca y barbuquejo rizado, y las facciones menos definidas. Constituyen un dato interesante, que permite relacionarlos con otros casos de alternancia de cabeza de "dama y caballero".

Desconocemos el origen de los apeos descritos. Es difícil pensar que fueran apoyos de un cuerpo superior de la espadaña, ya que quedaría un poco en voladizo. Lo que sí está claro es que fueron movidos en las intervenciones posteriores, al igual que otro apeo que encontramos entre los dos arcos de la espadaña, que no guarda semejanza con los anteriores. Hoy la encontramos convertida en torre-campanario. En este mismo muro hay un ventanal, sin duda abierto con posterioridad, en el que las piedras que le rodean han roto la uniformidad de la pared. Tiene el arco apuntado, con una arquivolta moldurada y un sobrearco baquetonado, que carece de apeos, mientras que la arquivolta descansa en unas columnillas lisas de basas muy simples y unos capiteles lisos que se cubren con un remate poligonal, siguiendo el modelo de los apeos de la espadaña.

En el interior de la iglesia se mantiene la estructura medieval, con una sola nave de dos tramos y cabecera recta. Está cubierta por bóveda de cañón apuntado, algo más baja en la zona de la cabecera, coincidiendo con las marcas exteriores pertenecientes a la primitiva iglesia. El arco triunfal, doble y apuntado, descansa sobre dos columnas adosadas al muro, que fueron cortadas, en la parte inferior, en las obras que se realizaron en el siglo XVII, rematándolas con una repisa moldurada fusiforme. Los ricos capiteles que las rematan siguen los mismos modelos de traza y talla que los de la portada. Están decorados con motivos vegetales. En el de la izquierda se superponen dos filas de hojas de acanto, recuerdo del arte griego, muy estilizadas, con perlitas en el vástago central y las puntas vueltas, rematado todo con unos tallos que forman pequeñas volutas. En el capitel de la derecha también encontramos dos registros, que nos recuerdan el orden corintio romano; el inferior ha sustituido las hojas de acanto por otras más evolucionadas y de mayor difusión en el románico alavés. Son hojas que



*Portadako kapitela*  
*Capiteles de la portada*



*Hegoaldeko bormako kapitela*  
*Capitel del muro sur*



*Garaiñen-arkuko kapitela / Capiteles del arco triunfal*



tuztelarik; bata laua da, eta besteak pezioloak. Peziolo horien erdian zehar nerbioa joaten da batzuetan, eta perlatxoak besteetan.

Burualdea zabalago egiten da alboetan, kapera bi eraiki baitzizkioten ondorengo urteetan. Ebanjelioaren aldean behealderainokoa da kapera eta arku zorrotzeko Erdi Aroko gangak estalita dago, bi parpain-arkuk eusten diotelarik, nabe nagusiarekin loturik erdi-puntuko bi arkuren bidez: bat burualdean, eta bestea, nabearen lehen atalean. Kapera horretan Kristo Gurutziltzatua irudi bikaina ageri da; xvi. mendeko lana da, arte-balio handikoa, eta inguruan debozio handia pizten duena. Eskuineko kapera, berriz, nabeari lotuta dator erdi-puntuko arku molduradun baten bitartez, eta arku tertzeletadun ganga batek estalita dago, xvi. mendearen azken urteetan egina.

Tenpluaren oinetan beste leihate bat dago irekita, mendebaldekoaren ezaugarri bereberekin. Berdin dago osatuta eta apaingarrien gabezia bera du. Arkua nahikoa zorrotza ageri da oraingo honetan, eta kasu honetan bake-toidun hiru arkibolta ditu, lauak, eta alde bakoitzean fuste bakuneko hiru zutabe txikiren gainean datoz. Kapitela ere lauak dira, erremate poligonalarekin eta harroin bakunekin, hainbat altueratan jarriak. Horri esker, baoak txar-ranbelduagoa dirudi.

recuerdan al helecho, con un nervio central y peciolos perlados, situadas en posición vertical, con las puntas unidas dos a dos, y de donde cuelgan racimos globulosos. En los bordes de las hojas se forman unos pequeños espacios romboidales, realizados a trépano, que crean un profundo efecto de claroscuro. El registro superior muestra unos tallos esbeltos, formando clásicas volutas en los ángulos; uno aparece liso, y los otros con peciolos recorridos en su parte central, unas veces por un nervio, y otras, por perlitás.

La cabecera se amplía, hacia sus laterales, con dos capillas construidas en época posterior. En el lado del evangelio se prolonga hasta los pies, y está cubierta con bóveda medieval de cañón apuntado, sujeta por dos arcos fajones, comunicándose con la nave principal a través de dos arcos de medio punto: uno situado en la cabecera, y otro en el primer tramo de la nave. En esta capilla hay una buena imagen de Cristo Crucificado, obra del siglo xvi, de gran valor artístico y que genera, como se ha dicho, profunda devoción popular. La capilla de la derecha se comunica con la nave mediante un arco de medio punto moldurado, y se cubre con bóveda de terceletes, del siglo xvi avanzado.

A los pies del templo se abre un ventanal que coincide con el descrito en el muro de poniente. Sigue el mismo esquema compositivo y la misma carencia ornamental. El



Abetxukuko San Migel elizaren barruan Erdi Aroko beste elementu bat ere badago: bataiarriaren oina. Gaur egin aldareko mahaiari eusten dio. Zutabeak atzapar irudiak ditu harroinean, eta maskaroiak borratuta, Micaela Portillak Monumentuen Katalogoan deskribatzen duen bezala.

Testua eta argazkiak: RHA - Planoak: MDRF

arco se muestra ya muy apuntado y en este caso con tres arquivoltas baquetonadas, lisas, que descansan en tres columnillas de fustes lisos a cada lado. Los capiteles también son lisos, con el remate poligonal y las basas sencillas, dispuestas en diferente altura, lo que confiere al vano mayor efecto de abocinamiento.

Otro elemento medieval que encontramos en el interior de la iglesia de San Miguel de Abetxuko es el pie de la pila bautismal que hoy se utiliza para sustentar la mesa del altar. Se trata de una columna con basa de garras y mascarones borrados en ellas, tal y como lo describe Micaela Portilla en el Catálogo Monumental.

Texto y fotos: RHA - Planos: MDRF

### *Bibliografía / Bibliografía*

APRAIZ, E., 1966, pp. 24-29; BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 107; GARCÍA ORTEGA, M. R., 1982, p. 650; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1998, pp. 82-83; LÓPEZ DE GUERENU, G., 1962, p. 385; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, p. 40, fig. 9; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997c, I, pp. 188-189; PORTILLA VITORIA, M. J., 1968, p. 70; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 133-135, fig.147-155.